

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren ebaluazio diagnostikoa

2021-2022 ikasturtea

Matematika gaitasuna

BURUZKO KALKULUKO ARIKETA

**Irakasleentzako jarraibideak (IRAKURRI ARRETAZ PROBA APLIKATU BAINO LEHEN)**

- Giro egokia ezarri, arretatsu eta isilik egon daitezen.
- 1. ariketa egingo dela azaldu eta enuntziatua arretaz eta ozenki irakurri.
- Irakurri ondoren, eragiketak eta buruketak enuntziatuko dira, errepikapen batetik bestera 5 segundoko tartea utziz.
- Ariketa osoan zehar intonazio egokia erabiliko da, 6 eragiketen/buruketen artean eten argia eginez.

<b>A eragiketa</b>	$7 + 6 - 8 + 9 =$ (7 gehi 6... 2 segundoko etenaldia... ken 8... 2 segundoko etenaldia... gehi 9 berdina...)
<b>B eragiketa</b>	$67 - 21 =$ (67 ken 21 berdina...)
<b>C eragiketa</b>	$72 : 9 + 9 =$ (72 zati 9... 2 segundoko etenaldia... gehi 9 berdina...)
<b>D problema</b>	Uxuek 15 ahate, 8 putre eta 4 zikoina kontatu ditu. Guztira, zenbat hegazti kontatu ditu Uxuek?
<b>E problema</b>	Gaur 800 lagunek bisitatu dute Erriberriko gaztelua. Horietatik, 150 lagun dohainik sartu dira. Zenbat lagunek ordaindu dute sarrera?
<b>F problema</b>	Lau saski berdina ditugu. Saski bakoitzean 15 kg mahats ditugu. Zenbat kilo mahats ditugu guztira?